



HORI BAI IPURDIA!

Antton Dueso

*Miel Anjel Elustondoren moldapena
Egilearen marrazkiak*

Desclée De Brouwer



1. Zakila-tente



Punki izerditan, ametsetan, izara artean batera eta bestera jirabueltaka urduri. Bihotza arin-arin taupadaka, arnasa ere gero eta estuago, antsika ia-ia. Noizik eta behin, zer edo zer esaten zuela ematen zuen, marmarrean. Izenen bat, beharbada. Gorputza ere hotzikaratan zuen, dardarka oin puntetatik gandor arroxako azken tximaraino.

—Julie, Julie!


Begiak zabaldu halako batean eta arreba ikusi zuen ohe parean izara artean nabarmentzen zen tontorrari begira. Zakila-tenteak egiten zuen tontorrari, seguru.



—Zer, kanpin-denda prestatzen ala? Bizkor eta malgu, arreba ziztuan kendu zen paretik. Esnagailuak ate ertza jo baino lehen beti ere... Bitartean dioska ari zen Punki, sutan eta maldizioka. Arreba, berriz, etxean aurrera eta atzera zebilela sumatu zuen, buila eta hoska:

—Punki pitilintente! Punki pitilintente!

Iratzargailuaren hondarrak jasotzen ari zela, erabaki zindoa hartu zuen Punkik. Nazka-nazka eginda zegoen! Hura kalbarioa, hura sofrikarioa, hura gurutze bidea! Denbora zen lo lasai egiten ez zuenetik! Seguru, euskal jatorriko neska amerikar hura ezagutu zuenetik. Behin edo behin azaldu zen ditxosozko neska hura eskolara eta ez ikasi –hala ere, ez ikastea ez zen nobedade Punkiri zegokionean–, eta ez jan egiten zuen. Julie Parker Etcheberry bere begien parean gertatu zenetik atsedetik ez zuen Punkik. Hiru hilabete ere baziren harrezkero eta Punkiren begizuloak ez ziren nolanhikoak. Ezta boxeolariak





ere, horren begi ilun eta itxiak! Luzaro ukatu zion bere buruari -bihotzeko aldizkarietako kontu xaharrak zirelakoan-, baina egia aitortu beharra zegoen. Nabarmen zegoen:

—Inondik ere, maitemindurik nago!

Eta janzten ari zela, erabaki zindoa hartu zuen beste behin. (Erabaki zindoa etengabe hartzen eta hartzen ari zen beti ere Punki. Ez alferrik baina!). Aurre egingo zion egoera berriari, eta gero gerokoak! Datorrena datorrela! Hortaz, bere maitasuna adieraziko zion Julieri... nahiz eta ezezkoa jaso. Hala ere, askoz nahiago zuen harakin aizto hura bihotzean, egunero-egunero duda gorrian bizi baino. Gainera, zitekeenik neskari politena izanda ere Julie -eta, batez ere, behin ere ikusi zuen ipurdirik ederrenaren jabe-, Punki bera ere ez zegoen itxura txarreko.



2. Hori bai ipurdia!



Aste batzuk ziren Punkik erabaki zindo hartu zuenetik. Saiatu zen -makina bat aldiz saiatu ere-, baina, hala ere, artean ez zuen Julieri bere maitasun dena agertzeko egokerarik izan.

Egun hartan ustegabeko atsegina izan zuen Punkik. Julieren lagun minak huts egin zuen eskolara. Garbiñe potzola antojagarri hura etxean geratu zen, minez ohean. Nonbait, mutilek ez baina neskek izan ohi duten minez zegoen. Beraz, Julieren ondoko mahaia libre zegoen egun hartan. Ez zen luzaro izan hutsik. Hantxe jarri zen arrapaladan Punki, amerikar eder hari irribarre egiten saia-